



| | |
|---|--|
| Ekipoa | Ohe fluidotuko lehorgailuak |
| Kodea | C-3012 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Material granularrak eta hautsa lehortzeko efikazia handia; horrela, hainbat material berreskuratu ahal dira, berrerabili edo birziklatu ahal izateko. - Lehortzeko denbora gutxiago eta materialak lehortzeko energia-kontsumo txikiagoa. |
| Honetan datza: | <p>Ohe fluidotuko lehorgailua erabiltzen da eta askotariko hautsen eta granuluen hezetasuna murrizteko. Ohe fluidotuko lehorgailuaren funtzionamendu-printzipioa da presio handiko aire beroa sartzea partikula solido hezeak dituen ohe zulatu batetik zehar. Partikula horiek aire-korrontean esekita geratzen dira eta egoera fluidotua eskuratzen dute; horrela, solidoek emari libreko jariakin irakin gisa jokatzen dute. Hala, banakako partikula heze bakoitzaren gainazala aire beroarekin kontaktuan lehortzen jartzen da; ondorioz, handia da bero-transferentzia, eta lehortze-denbora, laburra.</p> <p>Ohe fluidotuko lehorgailuak aire-ganbera bateratu batek eta lehortze-ganbera batek osatzen dituzte. Ganbera horiek aire porotsua banatzeko plaka batek bereizten ditu, eta gas jariakorra ohearen gainazalean uniformeki banatzea bermatzen du. Oro har, deflektore bertikal asko badaude lehortze-ganberan, ohe fluidotua hainbat ganbera txikietan zatitzeko, eta plaka banatzaile bakoitzak bahearen hondoaren eta plakaren arteko distantzia gorantz eta beherantz doitu dezake, materiala lehortzeko denbora bateratuagoa izan dadin. Material granularra etengabe sartzten da lehorgailuaren lehen ganberan elikatzaile batetik. Materiala fluidotuta dagoenez, aske mugitu daiteke lehenengo ganberatik ondoko atzeko ganberara, eta lehortutako produktua azken ganberatik deskargatzen da. Ohetik ateratzen den gasa orokorrean partikulak biltzeko bi gailutatik igarotzen da. Lehendabizi, zikloi-bereizgailu batetik, ohera sartutako material granularren finak sortzen dituen, eta, ondoren, gas-garbigailu batetik, partikulen legezko emisio-mugak betetzea ahalbidetzen duena.</p> <p>Beste aukera bat da material fluidotua dagoen lehortze-ganberan zeharkako beroa transferitzeko tutu edo xafla batzuk murgiltzea. Modu horretan, materiala deshidratatzeko behar den beroa bero-trukatzaileak eta fluidotzeko aire beroak ematen dute. Sistema horrekin, alde batetik, energia asko aurrezten da, trukagailuaren efizientzia oso handia baita (% 90ekoa gutxi gorabehera), eta, bestetik, behar den aire beroa nabarmenki gutxitzen da, eta horrenbestez, partikula-emisioak murrizten dira.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | Teknologia hau hainbat sektoretan aplikatu daiteke, besteak beste: industria kimikoa, elikagaien industria, plastikoen industria, beira eta metalezkoak ez diren produktu mineralak. |



Hala eta guztiz ere, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren esparruan teknologia hori aplikatu daitekeen sektore bakarra Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea; balorizazioa da (EJSN 38), uste baita teknologiak ingurumen-hobekuntza benetakoa dakarrela sektore horretan, oso teknologia erabilgarria baita agregakin mota guztiak lehortzeko eta ondoren berrerabili edo balorizatzeko.